



HAL
open science

XEDE BEREZIETARAKO HIZKERAK ETA TERMINOLOGIAK EUSKAL TRADIZIOAN ETA 1976 ARTE

Antton Elosegi

► **To cite this version:**

Antton Elosegi. XEDE BEREZIETARAKO HIZKERAK ETA TERMINOLOGIAK EUSKAL TRADIZIOAN ETA 1976 ARTE. Euskal Herriko Unibertsitatea. Argitalpen Zerbitzua, pp.141-155, 2002. artxibo-00085822

HAL Id: artxibo-00085822

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00085822>

Submitted on 14 Jul 2006

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

XEDE BEREZIETARAKO HIZKERAK ETA TERMINOLOGIAK EUSKAL TRADIZIOAN ETA 1976 ARTE

Antton Elozegi Aldasoro

Euskal Herriko Unibertsitatea

1.- ARTIKULUAREN HELBURUAK eta MUGAK

Lan honek¹ euskarazko xede bereziatarako hizkeren eta terminologiaren historiarentzako lehen urrats bat izan nahi du.

Horretarako, kontzeptu batzuk zehaztuz eta argituz hasiko naiz; hizkuntza baten barruan dauden aldaera motak elkarren artean bereiziaz, eta xede bereziatarako hizkerak deitzen ditugunak mota horien artean non kokatzen diren argituz. Horrekin batera, terminologia, xede bereziatarako hizkeren elementu bereizgarriak behinena, lan honetan zeri deitzen zaion azalduko dut.

Ondoren, xede bereziatarako hizkera adigaia oso modu zabalean ulerturik, horrelako hizkerez osaturiko testuak euskal literaturan zehar atzematen saiatuko naiz.

Bi alderdi bereiziko ditut: hizkera bereziatarako testuak berak alde batetik, eta euskarazko hizkera berezituak buruz idatzi dena, bestetik.

Muga kronologikoa, 1976 urtean ipini dut, izenburuak dioen bezala. Horren arrazoiak ere azalduko dira; baina lan honen beste mugapen bat ere aitortu behar da: testu-bilaketa batean oinarritu banaiz ere lan honen helburua ez da filologikoa. Ez dut ikerkuntza lan berariazkorik egin testu aiantzien bila, aitzitik, guztiz “publikoak” diren edo filologoen lanari esker ezagunak diren testuen berri ematen dut. Izan ere, mende honetako liburuei buruzko datu gehienak Torrealdaitik (1993) jaso ditut.

Jakina denez, euskal tradizio idatzian bada gai bat erabat gailentzen dena: erlijioa. Erlijioa, berez, bada gai berezia, eta erlijioari buruzko testuak badira hizkera berezituak, eta euskal letretan, behe mailako testu askoren artean badira teologiaren izena ere merezi dutenak. Erlijio testuen zer-nolakoetan sartu ezean, ez ditugu hemen kontuan hartu, azken garaian argi eta garbi teologikotzat jo daitezkeen batzuk salbu.

¹ Berez, egilearen beraren doktore-tesiaren (Elozegi 2002) lehen zatiko atal batzuetan dauzka sustraiak eta elikagaiak, nahiz eta hainbat datu berri gehitu, eta beste hainbat irizpide eta ondorio modulatu.

Testuen erreferentzia bibliografikoz eta gainerako datuez osaturiko datu-base bat, artuikulu honen mugapen fisikoak direla-eta hona ezin bildua, da artikulua honetan laburbiltzen denaren oinarria.

1.- KONTZEPTU BATZUK ARGITZEA

1.1.- Hizkuntzetan hizkerak bereizteko arrazoiak

Hallidayk (82:50), Gregory eta Carrol-ek (1986), Lamuelak (1983:48), Cabrék (1992:67) eta beste batzuek aldaeren artean bi multzo nagusi egiten dituzte: aldaera dialektalak eta aldaera diatipikoak (edo erregistroak).

Oso garrantzitsua da hasierako bereizkuntza hori. Azpiahizkuntzak edo aldaera dialektalak, arrazoi geografikoak edo gizarte-estratifikazioari dagozkionak elkartzen dituen giza talde batean gertatzen direnak dira. Dialekto geografikoek eta sozialek, hizkuntza naturalaren ezaugarriak, hala sozio-pragmatikoak nola linguistikoak, dituzte: bizitzaren egoera guztietan erabiltzen dira, transmisio naturala dute (umetandik ikasten dira), ez dira, normalean, berariaz ikasten, komunitate osoak konpartitzen ditu, eta ezaugarri linguistikoak maila guztietan dituzte (fonetikan, lexikoan, sintaxian...). Izan ere, aldaera dialektalei ondo dagokie 'azpiahizkuntza' izendapena.

Aldaera edo hizkera dialektalen multzoaz gain, aldaera diatipikoak bereizten dira. Hizkera horiek ez dituzte betetzen aurrekoen baldintzak edo ezaugarriak. Nire ustez, kontzeptuak asko bihurtu behar dira "azpiahizkuntzaz" hitz egin ahal izateko. Esan daiteke hizkuntza baten erabilerak edo aukerak besterik ez direla: egoera jakin batzuetan, eta hainbat parametroren arabera gauzatzen baitira. Inolaz ere ezin bihurtu daitezke hizkuntza "osoa".

Aldaera diatipikoei maiz erregistro (register, registre, registro) deitu izan zaie, baina zehaztapen terminologikoa aurrerago eramateari ezinbestekoa deritzogu. Izan ere, batzuek (Wardhaugh, Longman) esanahi zehatz-murritza egozten diote hitz horri, baina, batzuek mota batekoa eta besteek beste²; beste ikertzaileek, aldiz, erregistro hitza oso zentzu zabalean erabiltzen dute. Honela, Hudson-ek (1995) dio erregistroak hainbat parametroren baitan egon daitezkeela, eta parametro horiek independenteak eta elkarren

² Esate baterako Longman Dictionary of Language Teaching and Applied Linguistics, (1992:242)-entzat lanbide-hizkeraren sinonimoa da: "speech variety used by a particular group of people usually sharing the same occupation (...) or the same interests (...)" eta beste batzuek hala nola Wardhaugh-ek (1992:65), formaltasun-mailarekin lotzen dute.

artean konbinagarriak direla, hainbat erregistro desberdin lortzeko. Formaltasuna horietako parametro bat izango litzateke, eta teknikotasuna, beste bat.

Nahiago dut, Wardhaugh-en bidetik (1992:65) hitz hori formaltasun mailari, tratamenduari, eta oro har, komunikazio-egoeraren arabera hiztunak hautatzen duen aldaerari lotzea, eta xedearengatik edo gaiarengatik bereizitako hizkerentzat ‘erregistro’ hitza ez erabiltzea.

1. 2.- Gaiaz bereizitako hizkerak: lanbide-hizkeratik LSPra

Autoreak bat datoz onartzeko aldaera diatipikoen artean lanbidearen edo gaiaren arabera bereizten diren aldaera edo erabilera bereziak badirela.

Lanbide-hizkerak, edozein hizkuntzatan aurkitzen diren aldaerak, aspaldidanik aztertu ohi dira, baina gehienetan, soziolektotzat hartu izan dira; haien inguruko interesa gehiago egon ohi da antropologiatik hurbil³. Baina aspaldikoa da, halaber, hierarkizazioa egitea lanbidearen edo jakintzaren mailaren edo prestigio sozialaren arabera.

Hierarkizazio horren arrazoiak eztabaidan jarri gabe, hizkuntzaren aldaera diren aldetik, gure ustez bai ohiko lanbide-hizkerak eta bai Larramendiren “lenguas de las Ciencias y Facultades” —edo gaurko egunean xede berezietarako hizkerak, gaiaz bereizitako hizkerak, hizkera berezituak, hizkera bereziak, espezialitate-hizkerak edo hizkera teknikoak, edo LSPak— denek dituzte hainbat ezaugarri komun batzuk. Besteak beste, honako hauek: gizarte sektore (ez maila) batenak izatea, lanbidearekin edo jakintza lantzearekin lotutako egoeretan soilik erabiliak izatea, berariaz ikasiak izatea dira, eta beren berezitasun linguistikoak lexikoan batez ere egotea.

Horrelako elementuak dira oro har, xede berezietarako hizkerak direla eta kontuan hartzen direnak. Adibidez ikus daiteke Cabrék (1992:129) dakarren definizioa:

“En aquest treball utilitzen el terme llenguatges d'especialitat o llenguatges especializats en el sentit de subconjunts del llenguatge general caracteritzats pragmàticament per tres variables: la temàtica, els usuaris i les situacions de comunicació.”

³ Lazaro Carreter-ek (1974:250), ‘jerga’-tzat dauzka lanbide-hizkerak, “hampakoen” hizkerarekin, eta edozein talde sozialekoenekin batera, eta taldearen adibidetzat ematen ditu “jerga de médicos, de filósofos, de tipógrafos”.

1.3.- Hizkera berezietan aurki daitezkeen mailak.

Xede berezietarako hizkerak ikertzen dituztenen artean badira, noski, hemen proposatutako ulermodu zabala arbuiatzen dutenak, hizkera bati “xede berezietarako” edo “berezitu” tasunak egozteko oso baldintza zorrotzak jarriaz. Baina oro har denek onartzen dute hizkera bereziak mota askotakoak direla, hainbat sailkatze-irizpide proposatuaz.

Hoffmann da, agian, hizkera bereziak sailkatzeko eta mailakatzeko parametro eta irizpide multzo osoena proposatu duena. Haietarik, labur beharrez, abstrakzio eta espezifikazio-mailak kontuan hartzen dituen soilik hartuko dut kontuan, lan honetarako ikuspegi egokia emango digulakoan. Abstrakzio eta espezifikazioari begira, hainbat maila egin daitezke, eta Hoffmann-ek (Sager et al. (1980 :183) honako bostok proposatzen ditu :

- a) *Oinarrizko zientzia teorikoen hizkerak*
- b) *Zientzia esperimental eta teknikoen hizkerak*
- c) *Zientzia aplikatuen eta teknologien hizkerak*
- d) *ekoizpen materialaren hizkerak*
- e) *Kontsumoaren hizkerak*

Euskal testuen berezitasun mailaren neurgarri, mailaketa hori erabiliko dugu.

1.5.- Terminologia

Terminologiaz, hizkera bereziaz bezala, esan beharra dago, ikuspegi zorrotzak eta ez hain zorrotzak daudela. Terminologiaren teoria orokorraren jarraitzaileen arabera, ezingo litzateke terminoaz hitz egin, sistema baten osagai den adigai definitu zehatzik izan ezean. Teoria hori kritikatuaz ere, Cabrek (2002:68) lexiko orokorra, lexiko berezitua edo giltzarria eta terminologia bera garbi bereizi behar direla dio, baina praktikak erakusten digu horrenbeste baldintza bete gabe ere, gaiaz berezitako hizkeretako lexiko bereziari erraz eman ohi zaiola *termino* izendapena.

Artikulu honetarako, aldezturik dakigularik euskararen tradizioan benetako terminologia oso urria izan dela, nahiago dugu adigaia bere zentzurik zabalenean erabili, espezializazio-maila txikieneko lexikoa ere kontuan hartuaz, definizio zorrotzez arduratu gabe.

2.- HIZKERA BEREZIEI ETA TERMINOLOGIARI BURUZ IDATZI ZENA 1976 ARTE

Etxeparerengandik hasita hainbat idazle klasikotan suma daiteke euskara gai guztiez idazteko moldatu beharraren kezka, baina dakigun heinean, Larramendi da lehenbizikoa arazo horretaz artez eta sakon jardun dena. Haren ondoren ere, urte asko igaro beharko dira halako gogoetak idazten dituenik aurkitzeko.

2.1.- Larramendi, Altube eta beste aurrekariak

Andoaindarrak 1745ko *Diccionario Trilingüe*-ren sarrera luzean, bi hitz mota bereizten ditu: alde batetik arruntak ("*comunes, usuales y practicadas, aun del mismo vulgo*") eta bereziak, ("*vozes facultativas, propias de las mismas Ciencias, Artes y Facultades*"). Aitortzen du Larramendik, bigarren motako hitzetarako ere oso ongi prestaturik egon arren, horrelako hitzik euskaraz ez dagoela.

Gogoeta teoriko horiek badute isla, jakina den bezala, *Diccionario Trilingüe*-ren gorputzean. Beste euskal hiztegitan baino berezitasunezko hitz gehiago agertzen dira bertan, hainbat ahozko edo idatzizko euskaratik jasoak, hainbat berak sortutakoak.

Ezeztapen biribila da Larramendirena dioenean "*ninguno ha escrito en Bascuence delas Facultades y Ciencias*". Biribila eta interesgarria, garaiko lekuko kualifikatu baten balorazioa delako. Izan ere, Larramendi bezalako gizon ikasi batek ondo asko jakin behar zuen zenbat liburu eta izkribu zeuden gaztelaniaz, eta beste hizkuntzetan, idatziak gai horietaz.

Larramendiren ondotik, seguruenik Altube da, XX. mendearen hasieran, zientzia eta tekniketarako euskararen berezitasunaz eta euskara-mota desberdinen artean bereizi beharraz, argien eta zabalen idatzi zuen idazlea.

Villasantek (1963-64:296) dioenez, ahantzi samarra zegoen lan batean —geroztik sarritan aipatu bada ere⁴— agertzen da Altuberen gogoeta luzeena. Lan hori, «"Euskel Itz Barrijak". Eurok eraltzeko erdaraak zetara lagundu egin bear dauskuen» Eusko Ikaskuntzaren batzarrean, Gernikan, 1922an egindako hitzaldia da; bertan, "*lau klasetako izkera berarizkoak*" bereizten ditu. Hona haren hitzak

"Lenengo klaseko izkera berarizkoak. Euskalerrian aspalditik bertokotuta ditugun erlijio, langintza, jolasgintza, dendaritza, etxe-arazo-gintza ta abarrerri dagozkionak"

⁴ Esate baterako, Azkarate (1997); hemen ere, Villasanterengandik (1963-64, 305-309) hartu da aipua.

“Bigarren klasetako izkera berarizkoak. Atzerritik orain agertzen zaizkigun makiña, erreminta, jostaillu, soiñeko ta komertziotako naiz artaz kanpoko beste tresna ta arazo guztiei dagozkionak.”

“Irugarren klasetako izkera berarizkoak. Erritar arazoez goitikoak; goi-jakintzari dagozkionak.”

“Laugarren klasetako izkera berarizkoa. Literatura izkera.”

Ohartaraztekoa da, horrelako hizkera-motak bereiztean Seber Altubek ez duela argitzen Larramendik bezala zein ziren benetan zeudenak eta zein ez. Bestalde, Altubek proposatzen duen sailkapena askoz zehatzagoa da, eta neurri batean, ikusi dugun Hoffmann-enaren bidetik doa. Geroagoko eboluzioan eta Euskaltzaindiaren ideietan izan zuen eraginarengatik, oso garrantzitsutzat jo behar da Altuberen ekarpena.

Ez da erraz aurkitzen 1936 aurretiko idazleen artean gogoeta zehatzik euskarazko hizkera bereziei buruz. Zerbait aipatzekotan, Leizaolak, euskararen gaitasuna defendatuz egindako hitzaldia, edo Gabirel Jauregik *Pisian* idatzitakoa, edo Lopez Mendizabalena.

2.2.- Erbestea eta gerraondoko lehen belaunaldiak,

Jakina den bezala, 1936-37 gerraondoko lehen urteetan euskara idatziaren ekoizpenak hondoa jotzen du. Batere libururik argitararaten ikusi ez zuten urteak igarota, oso apurka eta maiz Ameriketako erbestean, argitalpenak suspertuz doaz, baina nekez aurkituko dugu garai hartako testuen artean espezializazio minimorik daukanik.

Zehatz hitz eginik espezialitate-testuez bereziki arduratu ez baziren ere, oso kontuan hartzekoak dira Euzko Gogoia aldizkaria eta haren sustatzaileak, batez ere Zaitegi sortzailea, Ibiñagabeitia, eta Orixe. Izan ere, haien idazkietan, eta bereziki itzulpen lanetan (Sofokles, Platon, Virgilio, San Agustin, Nazio Batuen Erakundea) euskara goi mailako erabilereretan zailtzeko asmo ohartua dagoelako, eta neurri batean, beren idazlanetan terminologia-sortzaile agertzen direlako.

Baina Euskal Herrian bertan, aurreko idazle gehienak hilik edo munduan barreiatuak, belaunaldi guztiz berria sortzen da Hegoaldean. Euskararen iraupenari berari buruzko kezkarakin, euskarak bizitza modernoaren abagune guztietarako balio behar zuela, eta batua behar zuela dira belaun berriaren ideia nagusiak.

Oso ideologia desberdinetako jendea (Mirande, Krutwig, Mitxelena, Villasante...) bildu arren denak datoz bat bi hatsarre nagusi horietan: euskararen batasuna, eta denetarakotasuna. Gehienak hizkuntzalariak edo idazleak dira eta Euskaltzaindian

aurkitzen dute babes

2.3.- Euskaltzaindia: 1959ko agiria eta 1963ko Euskalzaleen Biltzarra

Oso goiztiarra da Euskaltzaindiaren agerpena artikuluko honen gai den munduan. 1959. urtean plazaratutako "Euskal itzak zein diren" izenburuko agiriak berebiziko eragina eta ondorioak izan zituen: hizkuntzan erroturiko hitzak jatorrak zirela, eta bizimodu modernokoak ere beharrezkoak zirela deklaraturakoan irauli egin zituen ordu arte euskal letretan nagusi ziren hainbat aurreiritzi.

Euskaltzaindiarena bakarrik izan ez bazen ere, Akademia izan zenez suspertzaile nagusia, haren emaitzatzat eman daiteke Euskalzaleen Biltzarra, 1963ko irail-urrietan burutu zena. Biltzarraren gai nagusia "Euskal-iztegia eta gaur eguneko bearrak" izan zen eta bi atal izan zituen: "Euskal iztegiaren iturburuak" eta "Kultura-itzak euskeraz". Bertan, besteak beste, Villasante, Krutwig, Mitxelena, Azurmendi, eta Oskillasoren lanak aurkeztu ziren, denek nola edo hala, euskarak erabilera guztietarako balio behar zuelako ideia defendatuz.

Bereziki garrantzitsua ordu arteko ekintza eta eztabaida gehien-gehien berri ematen duelako, Joxe Azurmendiren "Jakin: Euskal kulturaren bideak lantzen" artikulua luzea.

2.4.- Euskara batuaren aurkakoak eta aldekoak

Lehenagotik egosten ari zen eta 1968tik aurrera ofizialtzen den euskara batua onartu ez zutenen artean badago testu berezitzen produkzioa, apurra bada ere⁵, baina ez da erraz aurkitzen gai hori jorratzera berariaz zuzenduriko testurik. Izan ere, eztabaidetako pasarteetan suma daitekeena da aldakuntzaren beldurra eta betiko euskarari eusteko asmoa.

Euskara batua, hiritartua, arlo guztietan erabiltzeko asmoarekin batera zetorren haren bultzatzaileen gogoan, eta alderantziz, euskara batuari oztopo handienak jarri zizkieten artean aurkitzen dira euskara arlo guztietara zabaltzearen aurreko beldurrik eta eragozpenik handienak.

⁵ Badirudi, nekazaritza, abelzantza, oihanzantza eta horiei lotutako teknikak eta erlijioari dagozkion hainbat genero direla euskara ez batuaren gordeleku, eta hain zuzen ere, "goi"-zientziari eta mundu urbanoari dagozkionak, euskara batuan idatzi izan direla ia beti.

Horixe erakusten digute Koldo Zuazoren *Euskararen Batasuna* liburutik hartu ditugun aipuok: Orixeren: “*Utzi detzagun kimika ta olakoak, oriek ez baitira giza-izkuntza yatorra. Oriek ez dute batere edertu iñongo izkuntzarik. Itsusitu bai, gogotik*”, Justo Mocoaren : “*Pretender rivalizar, en el terreno escolar o en cualquier otro dependiente de la administración pública, con dos idiomas oficiales, vehículos superiores de cultura moderna (...), es renunciar a vivir*” edo 'Aspaldiko' izengoitidunak azaltzen dituen errezeloak: “*Landuzale berri batzuek ba-ditugu aurrerantzean euskera areago eraman nai dutenak: Philosophia Naturalis, Bacon, Newton eta Einstein'en eremuetara. Ez dago gaizki ametsa. Nik uste ordea, ez ote dan oraingoz urrutitxo joatea. Teoloji goitar, kimika ta antzekoak ikasteko beti jo bearko dugu erderara*”.

Horien aburuz euskarari kalte egiten zion une hartan hizkera espezializatuak lantzeak. Euskara batuaren aldekoak, berriz, ia aho batez agertzen dira lexikoa berritzearen eta gai guztietarako egokitzearen alde.

2.5.- Lan sistematikoa: Giza zientziak. *Jakin*, *Egan*, eta besteak

1950eko hamarraldian euskara berritzeaz eta hizkera berezien beharraz aipamen laburrak azalduaz doazen bezala, 1960koan, gai horiei buruzko idazlanak ugaritu eta berariaz sustatzen dira. Bi gune, bi aldizkari, daude garai horietan bereziki aipagarri. *Jakin* eta *Egan*.

Gorago aipatu den Euskalzaleen Biltzarrean (Euskera VIII-IX, 1963-64) J. Azurmendik ordu arteko *Jakinen* lanak kontatzen ditu. Besteak beste, jakintza-arlo hauetako lanak argitaratu direla dio: teologia, filosofia, psikologia, soziologia, zinea, astronautika, poesia, estetika, liturgia. Gainera, artikulu luzearen atal batek "Teknika ta kultura itzen kontua" dauka izenburu.

Jakin aldizkari berrituan, 1964tik aurrera, erlijioa, filosofia, gizartea, hizkuntza, politika, eta gizarte-diziplinak lantzen dira, fisika edo algebrari (Santamaria) buruzko apurren bat ere agertzen delarik. Mendizabal, Torrealdei, Intxasusti, Azurmendi izenak agertzen dira sustatzaileen artean. *Jakinen* editorialetan, helburua era guztietako kultura euskaraz sustatzea, eta horretarako euskarari baliabideak ematea dela errepikatzen da.

Beste aldetik, 1950 urteetatik dator *Egan*, literatur aldizkaria, baina era guztietako idazlanak argitaratzen dituena. Horietako asko saiakerak, literaturari, filosofiari, zientziari buruzkoak, Krutwig, Txillardegia, Mitxelena, Villasante eta besteren eskutik.

2.6.- Zientzia eta tekniketako euskara: Anaitasuna, UEU, Elhuyar

Aurreko garaietan ez dira gehiegi pentsatzen dutenak euskarak une horretan edo epe laburrean jakintzetarako eta tekniketarako erabili ahal izango dela. Izen batzuk nabarmentzearen, Txillardegirena eta Krutwigena; *Egan* aldizkarian gehienbat, baina beste zenbaitetan ere. Bien bitartean, jakintzen irakaskuntza hasia da ikastoletan hedatzen, eta arazo praktikoak nabarmentzen.

Esan daiteke bigarren urrats praktikoa, bestelako zientzien (zientzia zehatzak, fisika, kimika, natur zientziak) ingurukoa dela, 1972tik aurrera. Aurreko garaietan teorizazio-lana aldizkari batzuen inguruan egin zen bezala, orain ere, bizpahiru erakundek berganutzen dute zama gehiena.

1973 urtean Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) sortzen da Donibane Lohizunen egindako jardunaldietan. Harrezkero, urtez urte ekitaldiak berregiten dira, eta argitalpenak ere hasten dira. Gizarte gaiez gain, J.R. Etxebarriak dioenez, fisika, kimika, informatika eta horrelako gaiak lantzen dira. “Euskara teknikoaren” suspertzaile honen lan asko Anaitasuna aldizkarian irakur daitezke.

Izen berriak, beste belaunaldi bat, agertzen dira hizkera berezitu horien sustatzaile, *Elhuyar* aldizkariaren inguruan, nahiz eta Karlos Santamariak bere lanak *Jakinen* ere argitaratu; aipatu J.R. Etxebarria, L. Bandrés, A. Sagarna, eta M. Zalbide dira gehien errepikatzen direnak. Horien ezaugarria da ogibidez denak direla lantzen dituzten gaietako profesionalak edo adituak.

Halaber, *Elhuyar* aldizkarian irakur daitezke euskara tekniko eta zientifikoari buruzko hainbat saiakera eta bibliografia.

2.7.- *Natur Zientziak Hiztegia* eta haren “Atarian” hitzaurrea

Esan daiteke 1970ko hamarkadaren lehen erdian jadanik argitaratzen direla aski maila garaiko hizkera berezituetao testuak, eta hizkera horiek beren berezitasunean aztertzeo idatzitako lanak, baina Jose Ramon Etxebarriak (1992:101) dioen bezala, *Natur Zientziak Hiztegiak* markatzen du zientziaren arloko euskararen zedarrri handi bat. Estrainako aldiz argitaratzen da euskal hiztegi espezializatua euskarazko definizioz hornitua, eta espezialitate horretako hainbat adituren lankidetzarekin. Esan genezake hura dela euskarazko lehen espezialitate-hiztegi modernoa, eta gainera, "Atarian" izeneko sarrera-artikulu luzean, Paulo Agirrebaltategik egiten dituen gogoetak lexikografia

espezializatuari buruz, han bertan martxan jarri zen lan lexikografiko oparo eta eztabaidatua, UZEIkoa, abiarazi zuen. Honako puntu hauek azpimarratuko genituzke:

Hizkera bereziei buruzko teorizazio edo gogoetak: hizkera espezializatuak ez direla hitz berezien mordo huts bat, hizkuntzaren osagai guztiez osatutako hizkerak baizik aldeztuaz; "herri-hiztegi arrunta" (bertan "arrantzaleena, edo jostunena, edo nekazariena edo Eibarko langileena" sartuaz eta "zientzietako hiztegi landuak" bereizten dira.

Hiztegi-moten sailkapena egin ondoren, *Natur Zientziak* hiztegiaren nolakotasunak azaltzen ditu: tradiziozko hiztegi espezializatua; bere espezializazio mailaz dio orokorra dela, ez dela espezialistentzat egindako hiztegi bat.

3.- XEDE BEREZIETARAKO TESTUAK 1976 ARTE

3.1.- Bereizi ditugun aldiak: 1900 arte; 1900-1937; 1937-1976

Hiru alditan banatu dira 1976 arteko euskal testu berezituak. Lehenengoaren muga, XX mendearen hasiera izan da. Egia da euskal literaturaren historian urte batzuk aurreratu izan dela banalerro hori, baina hizkera berezietako testuei dagokienez, ez da aldaketarik sumatzen. Hortaz, besterik gabe, zenbaki biribila hautatu da.

Hurrengo aldiak, 1900dik 1937rakoak, dudagabeko azken muga dauka. Izan ere, Espainiako gerrak ia erabat suntsitu zuen gertatzen ari zen loraldia, erabateko aldaketa eraginez.

Azkenekoa, jakina, 1937tik 1976koa izango da. Esan bezala, 1976 urtean aldi baten bukaera ipintzeko arrazoi nagusietarikoa *Natur Zientziak* hiztegiaren argitalpena izan da.

3.2.- Bilduriko testuak: zenbakiak eta zernolakoak

Argitaratuak edo jadanik berri emandako testuen bilketara mugatzen da lan hau, esan bezala. Testu berezitzat emateko irizpideak, nahitaez, oso zabalak izan dira: artikulua honen lehen puntuan azalduriko adigaiak modurik hedatuenean ulertuz; batez ere, lehen aldian. Hoffmann-ek proposaturiko espezifikazio- eta abstrakzio-mailaketan bostak onartu dira hizkera berezi bezala.

Sarreran esan bezala, artikulua honen aztergaitik at geratu dira euskal tradizioan izan diren erlijioari buruzko testu berezituak.

Hona, aldika zerrendaratutakoen kopuruak:

Urtealdiak	<1899	1900-1937	1937-1976	Guztira
Kopuruak	20	60	215	295

Ondorengo lerroetan, aldian aldian plazaratutakoen xehetasun batzuk.

3.3. 1900 arteko testu berezituak

Iztuetaren kondaira eta Mogelen Peru Abarka ere barruan daudelarik, 17-20 titulu besterik ezin izan dira sartu.

Horien artean, nabigazioa, nekazaritza, albaitaritza, sukaldaritza, burdingintza eta antzeko lanbide-testuak aurkitzen dira. Ozta-ozta, XIX mendearen bukaerako natur zientzietako hitz-zerrenda batzuetan agertzen da helburu zientifikoa. Multzo berezia osatzen dute administrazioko eta zuzenbideko testu praktikoak, garrantzitsuenak, Frantziako Iraultzaren garaikoak.

Berezitasun mailari gagozkiolarik, 1677ko *Liburu hau da ixasoco nabigacioneoa* nabarmendu behar da, baina beti ere, Hoffmann-en c) mailan edo hortik behera.

3.4.- 1900-1937

Bigarren aldian 60ren bat izenburu zerrendatu dira, erlijiozkoak sartu gabe. Aurreko denbora guztietako kopuruaren halako hiru aurkitzea adierazgarria da. Orobat, testuetan trataturiko gai bereziak ere ugaritu egiten dira, ondoko taulak erakusten duenez:

Filosofia	4	Medik., higiena	5
Hezkuntza	3	Matematika	5
Soziol., politika	9	Natur zientziak	12
Hizkuntzalaritza	5	Ingeninaritza	1
Geografia	4	Nekaz., agronomia	11
Etnologia	1	Fisika, kimika	2

Aldaketa nabarmena dago XX. mendearen hasieran: testu gehienak ez dira ohiko lanbideei lotuak, gehiago daude irakaskuntzari begira, edo hizkuntza bera lantzeari begira.

Hainbat izenburutan, zientzien izenak agertzen dira, oso modu orokorrean bada ere, jakintza-testuak direla adieraziaz. Batzuk, liburu mardulak dira: Erraimun Olabideren *Giza-soña* eta Gabirel Jauregiren *Pisia* eta *Kimika* adibidez; gehien gehienak, ordea, liburuxkak edo liburu xumeak.

Zuzenbideko testuei dagokienez, *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoan* jauzi nabarmena egiten da, ez bakarrik testuen kopuruan baizik eta, bereziki, teknikotasun-mailan.

Garai honetako testuen berezitasun mailari dagokionez, testu batzuen egileak adituak, profesionalak, lizentziadunak badira ere, esan behar da gehien-gehienak ez direla testu profesionalak, gehienak dibulgazio mailakoak edo zuzenean eskola-haurrentzako moldatuak baitira.

3.5.-1937-1976 aldia

3.5.1.- Kopuruak: liburuak eta artikulak

Garai honetan, liburuen kopuruari soilik begiratzea engainagarriak izan daiteke, haiez gainera artikulak mordoak, zenbait aurreko garaietako liburuak baina askoz luzeagoak, argitaratzen direlako.

Aipagarriak dira, hainbat idazlan berezituren kokaleku izan zirelako, *Euzko Gogoa*, *BAP*, *Egan*, *Jakin*, eta *Euskera* aldizkariak, oro har giza zientziei dagokienez, aipatutako *Elhuyar* bereziki bestelako zientzietarako, eta baita *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia*, informazio orokorreko aldizkariak.

215 liburu zerrendaratu dira, baina irizpideen aplikazioak aldaraz dezake 200 edo 250era.

Esanguratsua da aldi honen barruan nola banatzen diren argitalpenak: progresioa geometrikoa da, handik aitzina gertatuko zena igarriaz.

Urtealdiak	37-40	41-50	51-60	61-70	71-76	Guztira
Kopuruak	4	1	12	67	135	215

3.5.2.- Gaiak.

Sailkatzerakoan oro har izen nagusi beretsuetan sartzen badira ere, garai honetan, Unescoren sailkapen-tauletan kokapen zehatzagoak dauzkate askok. Hona kopuru orokorrak:

Filosofia, Erlijioa	26	Medikuntza	5
Hezkuntza	23	Matematika	3
Soziologia, Politika	81	Natur Zien, Fis, Kim	20
Hizkuntza	22	Ingeniaritza	9
Geografia	7	Nekaz., albaitaritza	15
Zuzenbidea	4		

Hala liburu-izenburuetan nola artikuluetan, irakaskuntzak eta gogoeta sozio-

politikoak, oso modu zabalean ulertuta, hartzen dute nagusitasuna garai honetan, eta nekazaritzari eta ohiko lanbideei loturikoak gutxi dira.

Berezitasun-gai batzuk aski ugari eta sakonki lantzen dira: filosofia, soziologia, hizkuntzalaritza, hezkuntza, politika, eta ekonomia, batez ere.

3.6.3. Berezitasun mailari, hau da, teknikotasunari eta abstraktotasunari dagokienez, jasotzea nabarmena da. Eskola-liburu eta dibulgazio hutsezko testu askoren ondoan, hainbat adituk, maiz lizentziadunak eta irakasleak, beren kidekoentzako testuak plazaratzen dituzte, gehienbat artikulua gisa, bai *Jakinen* eta *Eganen*, bai azken urteetan *Elhuyarren*.

Beste aldetik, nazioartean ospetsuak diren adituen liburuak estraina aldiz euskaraz itzulirik argitaratzen dira.

4. ONDORIOAK

4.1.- Beste motetako euskal testuekin alderatuta,

XX mendearen bigarren erdia arte berezitasuneko testuek ez dute beste euskal testuekiko diferentzia nabarmenik erakusten: Iparralde-Hegoalde mugitzeak, testuen zernolakoak, besteen antzekoak dira. Mendearen erditik aurrera Hegoaldeko suspertze berrien osagai funtsezkoak dira hizkera berezituak.

4.2.- Inguruko hizkuntzekin alderatuta.

Jakina bada ere, azpimarratu egin behar da euskararen atzerapena, izan ere, gaztelaniaz, katalanez, eta frantsesez, XVI. mendean jada testu zientifiko eta tekniko jasoak ugari baitira. (Gutierrez Rodilla, 1998). XX. mendearen azken partean egiten dira lehen saioak euskaraz. Normalizaziotik oso urrun dagoen hizkuntza baten agerkari dira berezitasun-testuak.

4.3.- Testuen berezitasun mailaz

Giza zientziak, filosofia, hizkuntzalaritza, ekonomia eta antzeko diziplinak dira maila aski jasoan lehen lantzen direnak, 1950ko hamarralditik hasita. Erljio-testuak kenduz gero, urte haietakoak dira, salbuespenen bat ukatu gabe, gai bateko adituak, bere gaiari buruz idatzitako testu espezializatu samarrak. Aurreko aldian, Gabirel Jauregiren bezalako saioak, merezimendu handikoak izan arren, ez dira benetako aditu baten lanak.

Aparteko aipamena zor zaie hizkuntzari buruzkoei, gehienak aldizkarietan

argitaraturiko artikuluetan edo hitzaldietan barreiatuak: Mitxelena, Krutwig, Txillardeggi, Villasante eta beste batzuek, adituak zireneko gaiak euskaraz lantzean hizkuntzalaritza zientzian sailka daitezkeen testuak ontzen dituzte.

Natur zientziei eta zientzia zehatzei dagokienez, azken aldiko ondar urteetan, ez lehenago, aipatzekoak dira J.Iturberen (1974) lehen tesina zientifikoa, *Hartree-Fock-en methodoaren hurbilketa erdi-empirikoak* izenburukoa, eta *Elhuyar* aldizkarian plazaratutako dibulgazio-maila gainditzen duten zientzia zehatzetako eta naturaletako lan batzuk.

Bestalde, hainbat nazioarteko adituren obra ospetsuak itzultzen dira. Alor gehienetakoak, oso orokorrak, (entziklopediak eta abar) baina pedagogia arloan, maila profesionaleko lanak ere badira.

Hasieran (1.3., Hoffmann) proposatutako teknikotasunaren, eta abstraktotasunaren sailkapena aplikatuz, oso gutxi izango lirateke a) eta b) mailatan kokatzekoak. Hemen bildutako testuen berezitasun maila, gehienetan, kontsumoko hizkerari edo ekoizpen materialaren hizkerari dagozkiola esan daiteke. Azken 10-15 urteetan, badira zientzia aplikatuen hizkera, zientzia esperimentalen hizkera, eta agian, oinarrizko zientzia teorikoen hizkeraz idatzitako testuren batzuk.

4.4.- Hizkera bereziak eta estandarra

Euskaraz bete-betean baieztatzen da hizkuntzaren estandarizazioa baldintza dela hizkera berezituak gara daitezen. Gurean, esan daiteke estandarrarekin batera hasten dela testu berezituaren ekoizpen jarraitua. Bestalde, batuaren estandarra finkatzen denean, ia testu berezitu guztiak batuan idazten dira. Salbuespenak dira bestelakoak.

Eskola-liburuetan, eta nekazaritzako liburu teknikoetan, euskara ez batuaren presentzia dago, erlijiozkoetan, historiakoetan, geografiazkoetan, zertxobait; baina gainerakoetan, ia hutsik gabe euskara batua aurkitzen dugu.

4.5.- Hizkera bereziak eta terminologiak ohartuki sortzen dira

Izan ere, hizkera berezietako testuak eta terminologiak baino lehenago agertzen dira haien faltaz eta beharraz idatziriko testuaketa XX.mendeko testu anitzen sortzeko arrazoia hizkuntza erabilera horietarako gaitzeko asmoan datza.

4.6.- Itzulpenaren eta beste hizkuntzetako ereduaren pisua.

Lehen garaian oso nabarmena da; agian itzulitakoen ehunekoa jaitsi egiten da 1900-1936 aldian, eta berriro ugartu 1960-70 hamarraldietan. Azterketa berezirik egin ezean, ez dakigu arlo horietan itzulpenak testu orokorretan baino pisu handiago duen, baina nabarmena da, bereziki azken garaian, lexiko berezitua edo terminologia azaltzeko modu normala, gaztelaniazko baliokidea ematea dela. Argi dago ia beti zein izan den terminologiaren iturria.

BIBLIOGRAFIA

- Azurmendi, Joxe. 1963. "Jakín: Euskal kulturaren bideak lantzen". In *Euskera VIII-IX*, 1963-64, 336-371
- Cabré, Maria Teresa. 1992. *La terminologia. La teoria, els mètodes, les aplicacions*, Barcelona: Les naus d'Ampuries
- Cabré, Maria Teresa. 2002. "Terminologia ala terminologiak? Hizkuntza-espezialitatea ala diziplinarteko alorra". In *Uztaro*, 40, 2002, 63-74- Itz. Axun Aierbe
- Elosegi, Antton. 2002. Zuzenbideko euskal hizkera berezia. Lege-corpus itzuli bateko terminologiaren azterketa lin guistikoa eta terminologikoa. Doktore-tesia. Argitaragabea. EHU. Euskal Filologia Saila
- Etxebarria, Jose Ramon. 1992. "Zientziaren arloko euskararen batasunaz". in *ELE* 11-12 , 1992, 99-112
- Euskalzaleen Biltzarra. 1963-1964. *Euskera. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak VIII-IX*, 1963-64
- Gutierrez Rodilla, Bertha M. 1998. *La ciencia empieza en la palabra. Análisis e historia del lenguaje científico*. Madrid: Península
- Lazaro Carreter, F. 1974. *Diccionario de términos filológicos*. Madrid : Gredos
- Sager, J. C.; Dungworth D.; McDopnald P.F. 1980. *English Special Languages: Principles and Practice in Science and Technology* Wiesbaden: Oscar Brandstetter
- Torrealdai, Joan Mari. 1993. *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa (1900-1992)*. Donostia: Diputación de Gipuzkoa
- Villasante Luis. 1963-64. «Sebero Altube, iztegi arazoetan maisu» in *Euskera*, VIII-IX, 1963-64, 292-313
- Zuazo, Koldo. 1988. *Euskararen Batasuna*. Bilbo: Euskaltzaindia